

# 6

## Ikasleari komunikatzeko behar dituen tresnak ematea dagokigu. Arlo ezberdinetatik, gainera

**Mikele Aldasorori elkarrizketa**

*Ikastolen Elkartea*

**Josune Zabala (elkarrizketatzailea)**

*Soziolinguistika Klusterra.*

[j.zabala@soziolinguistika.eus](mailto:j.zabala@soziolinguistika.eus)

Sarrera-data: 2015-09-03 / Onartze-data: 2015-10-15

**Laburpena.** Orain hamar urte Ikastolen Elkartek Euskal Curriculumaren egitasmoa (2005) Hezkuntza proiektua aurkeztu zuenetik buru-belarri dihardu lanean Mikele Aldasorok, oinarritzko konpetentziak ipar modura hartzen dituen eredu berria eraiki eta garatzen laguntzen. Argi du ikuspegi teorikoa eta gelako praktika elkarreraginean ulertuz egingo dela aurrera hezkuntza ereduaren eraikuntzan. Banakako lanetik harago balioesten du taldea: "talde egile, sortzaile potente bat gara" eta hezkuntza sistemako partaideen elkarreraginean sortzen den bizia bizi du. Dakienaz baino gehiago, egiten duenaz jardun zaigu "komunikatzen ikasi" konpetentzia EKI egitasmoaren bitartez nola lantzen den kontatzen. • **Hitz gakoak:** *hizkuntza konpetentziak, unitate didaktikoa, irakasleen formazioa.*

**Abstract.** Ever since the Association of Ikastolas (Basque-medium schools) presented the Education Project of the Basque Curriculum Project (2005) ten years ago, Mikele Aldasoro has been working hard helping to build and develop the new model that takes basic competences as the reference. She is in no doubt that the building of the education model will advance once the interaction between the theoretical perspective and classroom practice has been understood. She values the group more than individual work: "we are a powerful group that builds and creates" and she experiences the life that emerges in the interaction between the participants in the education system. She told us more about what she does than about what she knows when reporting on how the "learning to communicate" competence is being developed through the EKI project. • **Key words:** *language competences, didactic unit, teacher training.*

Hezkuntza munduko aditua dugu Mikele Aldasoro. Ikasketaz Hezkuntza Zientzietan lizentziatua eta Magisteritzan diplomatua. Ikasketen jarraibidea izan da bere arlo profesionalaren garapena ere: hezkuntzari eta ikastolei lotuta ibili izan da. Urretxu-Zumarraga ikastolan irakasle, eta Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko hainbat proiektutan partaide: DBHrako “Ostadar” Hezkuntzak arloko ikasmaterialgintzan eta irakasleen prestakuntzan garai batean, eta 2007tik Euskal Curriculumaren garapenean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako “EKI” proiektua gauzatuz, besteak beste. Euskal Herriko Ikastolen Elkartean curriculum arduraduna da gaur egun. “Komunikatzen ikasi” konpetentziaren baitan Ikastoletan ahozko komunikazioari nola helitzen zaionaren gainean sakondu dugu, bereziki, EKI egitasmoaren oinarriak jaso nahiaz.

### **JOSUNE ZABALA: Zein oinarritan kokatzen da EKI egitasmoa?**

MIKELE ALDASORO: Oinarrizko Konpetentzien araberako hezkuntza ereduaren hirugarren zehaztapen maila izango litzateke EKI egitasmoaren gauzapena. Euskal Curriculumaren egitasmoa (2005) izan zen abiapuntu teoriko bat, zeinetan zehazten zen etorkizuneko Ikastolen hezkuntza eredu konpetentzietan finkatuko zela; hortik aurrera lan egin da zehaztapen maila ezberdinetan sakontzen, eta EKI egitasmoa bide horretan gauzatutako material didaktikoa da.

Ikasleen irteera-profil orokorrak definitzen du, berez, ikasleak Oinarrizko Hezkuntza amaitzen duenean zein oinarrizko konpetentzia eskuratu behar dituen (diziplina bakoitzari dagozkionak eta diziplinetatik gaindikoak —metadiziplinarrak—). Bizitzako egoeretan moldatzen jakiteko ikaslearen irteera-profila irudikatuta eraikitzen da curriculum-diseinua. Lehen zehaztapen maila deitzen dioguna. Behin oinarri horiek finkatuta dator bigarren zehaztapen maila: arloka egin den curriculum diseinua. Hirugarren zehaztapen maila litzateke, arlo bakoitza garatzeko sortzen den material didaktikoa. Irudikatuz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikaslearen irteera-profilak zein izan beharko lukeen, helburu horiek erdiesteko eraiki den material didaktikoa dela esango genuke EKI.

### **Konpetentzietan oinarritzeak zer esan nahi du Ikastolarentzat?**

Konpetentzietan oinarrituta lan egiteko aukera teoriko ezberdinak ditugu, eta Ikastolen Elkartean integrazio pedagogiaren aldeko hautua egin da. Xavier Roegiers eta Alexia Peyser Lovaina Berriko (Belgika) Unibertsitateko irakasle eta BIEF bulegoko kideak dira integrazio pedagogiaren sortzaileak, eta beraien laguntza izan dugu konpetentzien baitako ikuspegiaren lanketan. Zehazki, konpetentzia bakoitza lotzen da egoera-familia batekin eta egoera horiek ikaslearen irteera profilarekin.

---

***Euskal Curriculumaren egitasmoa (2005) izan zen abiapuntu teoriko bat, zeinetan zehazten zen etorkizuneko Ikastolen hezkuntza eredu konpetentzietan finkatuko zela; hortik aurrera lan egin da zehaztapen maila ezberdinetan sakontzen, eta EKI egitasmoa bide horretan gauzatutako material didaktikoa da.***

**Oinarrizko  
eskolaldiaren  
funtzio nagusia  
baldin bada  
ikaslea  
bizitzarako  
presta dadila  
lortzea, horrek  
eskatzen du  
ikasleak  
pentsatzen eta  
ikasten jakin  
behar duela, kode  
ezberdinak  
erabiliz  
komunikatzen  
jakin behar  
duela, elkarrekin  
lana egiten eta  
bizitzen jakin  
behar duela,  
norbera izaten  
jakin behar duela  
eta egiten eta  
ekiten jakin  
behar duela.**

Zer esan nahi du horrek? Garai bateko edukien lanketa gainditu eta ikasleek eskolatze garaia amaitzen dutenean beharrezko izango dituzten kompetentziak eskuratzeko tresnak ematea dagokiola hezkuntzari.

Halaxe dio Euskal Curriculumak ere: “Kompetentzien araberrako hezkuntzaren ikuspuntutik beharrezkoa da jakintza akademikoak eskuratzea, baina ez da nahikoa. Kompetente izateko, beharrezkoa da, baita ere, eskuratutako jakintzak modu integratuan mobilizatzen jakitea bizitzako egoerei aurre egiteko. (...) Oinarrizko eskolaldiaren funtzio nagusia baldin bada ikaslea bizitzarako presta dadila lortzea, horrek eskatzen du ikasleak pentsatzen eta ikasten jakin behar duela, kode ezberdinak erabiliz komunikatzen jakin behar duela, elkarrekin lana egiten eta bizitzen jakin behar duela, norbera izaten jakin behar duela eta egiten eta ekiten jakin behar duela. Lorpen hori ahalbidetzeko, prozedura metodiziplinarrak integratzen dira ikas arloetan. (...) Curriculum-diseinuak bi elementuren bidez eragiten du aipatu planteamenduan: hizkuntzen curriculum integratua diseinatuz eta gauzatuz eta kompetentzia linguistikoaren garapena ikas arlo guztietan integratuz. (...) Langai den kompetentzia eta hari lotutako egoerak bihurtzen dira unitate didaktikoan landuko diren baliabideen (edukien) hautaketarako erreferentzia nagusia. Jokabide kompetenteak eskatzen du, alde batetik, kompetentziak eskatzen dituen baliabideak ikasleak bereganatu ditzala eta, beste aldetik, baliabide horiek era integratuaz eta estrategikoaz erabil ditzala egoera jakin batean. Beraz, Unitate didaktikoaren sekuentziaren diseinuak ahalbidetzen ditu bi ikaskuntza-motak, jokabide kompetenteak eskatzen dituen biak, hain zuzen ere.” (Ikastolen Elkarteak, Euskal Curriculumak). Kompetentzien zehaztapena izango litzateke EKI egitasmoa, hain zuzen ere.

### **Berrikuntza honetan irakasleen papera garrantzitsua da**

Euskal curriculumaren egitasmoa abiapuntu bat izan zen, abiapuntu oso teorikoa. Oso garrantzitsua hausnarketa bat izan zelako hezkuntzaren egiteko moduei begira, eta batez ere, partaidetza eta onespen handia izan zuelako. Oinarrizko dokumentua garatu eta zehazteko ardura hartu zuen Ikastolen Elkarteak, eta bide horretan, talde-lanean aritu gara. Irakasleek ibilbide handia egin dute. Teorian esaten zenari esanahia ematen ari zaie irakasleak gelan egiten dutenari esker. Eskaintzen diegun material didaktiko eta formazioarekin ulertzen dute egitasmoaren nondik norakoa, material didaktikoak proposatzen dituen jarduerak gauzatzen dituzte gelan, eta berriz ere iristen dira hobeto ulertzera kompetentzietan oinarritutako hezkuntza zertan datzan. Une honetan, bide hori egiten ari dira irakasleak.

Gure hezkuntza ereduaren ardatza da kompetentzien eta egoeren arteko lotura, eta unitate didaktikoak dira hori lortzeko tresnak. Teorian jarrita daukaguna gelaratzeko bitartekoa da DBHrako sortu dugun EKI materiala. Ikuspegi honen arabera lan egiteko formazio handia behar da: formazio teoriko orokorra eta praktikak ere bai. Horrek guztiak eskatzen du esfortzu handia irakaslearen aldetik. Irakasleak lan handia egiten ari dira berrikuntzaren alde.

### **Oinarri teorikoak eta ikasgelako praktika uztartzen dira talde-lanean**

Ezinbestekoa da horrelako egitasmo batean talde-lanean aritzea. Teoria eta gelako praktika uztartzen ahalegintzen gara, eta horretarako ditugu material egileak, sortzaileak eta irakasleak elkarrekin lanean, bakoitza beretik ekarpenak eginez.

Lana abiatzen da zehaztaperen maila ezberdinak definituzetik. Niri dagokit injineru lana egitea, lehenik, eta handik aurrera jarraitzen dugu materiala sortzen. Irakasleak formatzea da hurrengo lana, eta ondoren, hauek praktikan jartzen dute material didaktikoa. Irakasleek izandako esperientziak berriz partekatzen dituzte gurekin eta gainerako irakasleekin. Handik ateratako ondorioak bihurtzen dira berriz gure injinerutza lanaren abiapuntu.

### **Irakasleak formatzea izango da beste inbertsio handi bat, ezta?**

Bai, ezinbesteko lana da. Irakasleek behar dute formazio orokorra benetan barnera dezaten zer diren oinarriko kompetentziak. Diziplina baitako kompetentziak zein diren barneratzea ondo ulertzen dute, baina konplexuagoak dira kompetentzia metadiziplinarrak.

Ikastolen Elkartean saiakera egin da irakasleak formatzen gai honetan. Urtean hiru edo lau saio izaten dituzte prestakuntzakoak. Material didaktikoa aurkezten zaie. Material horretan zein kompetentzia garatuko den azaltzen zaie, baita horretarako zein bitarteko eta eduki lantzen diren ere; jarduera bakoitzean irakaslearen egitekoa zein den ikusten da. Materiala goitik behera aztertu eta aurkezten da: zein helburu didaktiko dituen, zein ebaluazio irizpide, unitatearen zein fase dauden, eta abar. Ondoren, irakasleak gelan proban jartzen du, eta handik etortzen dira berriz guregana partekatzeraren euren esperientzia.

Foroak ere sortu dira irakasleen artean euren esperientziak partekatzeko. Ikastolen Elkartetik erantzuten zaie irakasleen hainbat zalantzei, baina ez guzkiei. Foroan parte hartzen duen edonork erantzuten du, eta

---

***Euskal curriculumaren egitasmoa abiapuntu bat izan zen, abiapuntu oso teorikoa. Oso garrantzitsua hausnarketa bat izan zelako hezkuntzaren egiteko moduei begira, eta batez ere, partaidetza eta onespenez handia izan zuelako. Oinarriko dokumentua garatu eta zehazteko ardura hartu zuen Ikastolen Elkarteak, eta bide horretan, talde-lanean aritu gara.***

**Ikastolen  
Elkartean  
saiakera egin da  
irakasleak  
formatzen gai  
honetan. Urtean  
hiru edo lau saio  
izaten dituzte  
prestakuntzakoak.  
Material  
didaktikoa  
aurkezten zaie.  
Material  
horretan zein  
kompetentzia  
garatuko den  
azaltzen zaie,  
baita horretarako  
zein bitarteko eta  
eduki lantzen  
diren ere;  
jarduera  
bakoitzean  
irakaslearen  
egitekoa zein den  
ikusten da.  
Materiala goitik  
behera aztertu  
eta aurkezten da:  
zein helburu  
didaktiko dituen,  
zein ebaluazio  
irizpide,  
unitatearen zein  
fase dauden, eta  
abar.**

askotan irakasleak beraiek dira ekarpenik esanguratsuenak egiten dituztenak. Material bera toki ezberdinetan lantzen ari direnez, oso eman-korrek gertatzen dira ideiak eta zalantzak partekatzeko foro hauek. Une honetan, adibidez, alderdi digitalak zalantza asko sortu ditu (zein helbidetan sartu behar den informazioa, plataforma jakin bat nola ireki behar den, non egin behar den klik...), eta horretan ere lagundu egiten zaio irakasleari. Etengabeko jarraipena egiten zaio irakasleari, eta irakasleak etengabe parte hartzen du. Ikaragarritzko ahalegina egiten ari dira irakasleak egitasmo honetan.

### **Testu liburua ez, baizik material didaktikoa**

Hori da. Esan genezake testu liburuaz gaindi, material didaktikoa dela EKI. Papereko euskarria gainditzen du materialak. Papereko euskarria badu ere, baliabide digitaletan sortu ditugu hainbat eta hainbat jarduera, beraz, kompetentzia digitala landuz ikasiko dira gainerako kompetentziak ere.

Abiapuntuan DBHko prototipo bat egin zen proba modura. Ikastola gehienetan esperimintatu zen prototipo hori, eta bertatik ateratako ondorioekin egin ziren doikuntzak. Ikastoletako irakasleengandik jasotako eskarmentua izan zen informazio iturri nagusia. Eta ekarpen horiek osatu ziren kanpo aholkularitzarekin. Lovaina Berriko (Belgika) Unibertsitateko irakasleak eta BIEF bulegoko kideak izan genituen bidelagun: Xavier Roegiers-ek eta Alexia Peyser. Kompetentzien baitako ikuspegia integrazioaren pedagogiaren gunetik eraikitzen lagundu ziguten.

Une honetan, berriz, DBHn egindakoaren deribazioa egiten ari gara Lehen Hezkuntzan. Zehazki, LHko 3. ziklorako zehaztapen maila gauzatzen eta material didaktikoa sortzen (3. zehaztapen maila).

### **Diseinuan, zer da zentrala?**


Diseinua gauzatzen laguntzen duten elementuak behar dituzu oinarri teorikoak praktikan gauzatzeko. Are gehiago kompetentzien baitako ereduana murgilduta zaudenean. Guk horretarako egoerak eraikitzen ditugu. Egoerak dira 3. zehaztapen mailako unitate didaktikoetako tresnak.

Curriculumean zehazten den kompetentzia lotzen da gure materialetan hiru egoerarekin. Lehenik formulatzen da kompetentzia bat unitate didaktiko bakoitzean, eta formulazio hori lotzen da hiru egoerarekin. Kontuan hartu, kompetentzia eta jarduera ez direla gauza bera. Gure helburua ez da jarduera bat egiten irakastea edo hari erantzuteko trebatzea, baizik guk lortu nahi duguna da kompetentzia bat garatzen laguntzea.

Hala, formulatutako kompetentzia hori lotzen dugu hiru egoerarekin: unitatearen hasiera fasean eskaintzen zaie egoera bat, jarduera ezberdinak egiten dituzte ikasleek unitate didaktikoaren garapen fasean egoeraren ebaluzioa gauzatzeko. Egoera horri erantzuteko behar dituzten edukiak lantzen dira unitatean zehar, horretarako proposatzen diren jarduerak eginez. Lehen egoera honen bitartez ikasten dute integratzen. Bigarren egoera dago, berriz, unitate didaktikoaren amaiera fasean. Lehen egoeraren bitartez ikasitakoak egoera berri honetan transferitzen ikasten dute. Hirugarren egoera da azkena: ebaluaziorako egoera. Honi erantzuteko eskatzen zaie lehendik ikasitakoa integratzea eta transferitzea. Horiexek dira hiru egoerak. Egoerak ezberdinak izanagatik ere badute zerbait komunean: parametro batzuk, ikaskuntza jakin batzuk dituzte komunean. Parametro horiek baliatuz ebatzi behar dituzte ikasleek hiru egoera horiek. Egoera-familiak deitzen zaie ikaskuntza jakin batzuk integratuz eta transferituz ebatzi daitezkeelako hiruetako edozein egoera. Kompetentzia beti dago lotuta egoera-familia bati, eta guk horrelaxe antolatzen dugu unitate didaktikoa.

**Papereko euskarria badu ere, baliabide digitaletan sortu ditugu hainbat eta hainbat jarduera, beraz, kompetentzia digitala landuz ikasiko dira gainerako kompetentziak ere.**

### 1. irudia. Unitate didaktikoaren faseak



(Mikele Aldasoro, 2015)

**Gero eta onartuago dago komunikatzen ikasi kompetentzia arlo guztietan lantzea dagokigun kompetentzia dela.**

**Egoerak dira, orduan, materialaren muina**

Gure esparrua esparru akademikoa da, eta erabilpen akademikoan egoera ezberdinetako ekoizpenak egiten ditugu (eremu sozialeko egoera, adibidez). Egoerak eskatuko du zein hizkuntza baliabide erabili behar ditugun, baita gure ekoizpenaren egokitasun maila zein izango den ere. Ez da gauza bera ikasleak jartzea txiste lehiaketa baten edo sentipen literarioa lantzea, edo ikastolako pedagogia arduradunen inguruan duten kezka baten azalpena ematea. Egoerak baldintzatzen du guztia. Horregatik, guretzat oso inportantea da egoera jakinak ondo hautatzea. Ez ditugu edonola hautatzen egoerak: bizitzako eremuetakoa, ikasleentzat esanguratsua eta oso inportantea izan behar dute, eta gainera, sortu behar dituzten diskurtsoetarako behar dituzten ezagutzak eta trebetasunak lantzeko aukera ematen dutenak.

**2. irudia. Unitate didaktikoaren muina, egoera**



(Mikela Aldasoro, 2015)

Hizkuntzak duen izaera soziala kontuan hartuta, gauza bat da hitz egitea besterik gabe, eta bestea da egoerak eskatzen duen diskurtsoaren sorkuntza. Guk bigarren horren lanketari begirako proposamenak egiten ditugu.

**Nola lantzen da komunikatzen ikasi kompetentzia hizkuntzazkoak ez diren arloetan?**

Gero eta onartuago dago komunikatzen ikasi kompetentzia arlo guztietan

lantzea dagokigun kompetentzia dela. Ulertzea hasieran kosta egiten den arren. Lehen, arlo bakoitzeko irakasleak ardura zuen bere arloaren edukiak lantzeko. Momentu honetan, kompetentzien diskurtsoarekin konturatu gara edozein arlotan ikasleari eskatzen diogula ekoizpen bat gauza dezan: hitzeko produktu bat, arte ekoizpen bat, gorputzaren bidezko komunikazioa... Komunikatzen jakiteak kontuan hartzen ditu komunikazio molde ezberdinak.

Dena dela, maila teorikoan ulertzen dugun arren, gainerako arloetan kompetentzia hau garatzen da baldin eta erakusten edo laguntzen badiegu irakasleei hori nola egiten den. Arlo jakin batean eskatzen badiegu txosten bat idatzi edo landutako gai baten aurkezpena egin dezaten, arlo horretan landuko dituzte komunikazio ekintza horretarako baliabideak. Beraz, arlo horretako irakasleak hartuko du horren ardura.

Prozesu honen onarpena eta jarraipena ez da gauetik goizera gertatzen. Irakasleek adierazi izan digute euren egiteko moduetan aldatzeko gogoak; euren lanerako eta aldaketarako gogoak asko laguntzen du horretan, baina oraindik orain, atera egiten dira lehendik ditugun irakas-kuntza-eskemak eta kompetentzien ikuspegiarekin talka egiten du horrek. Irakasleentzako sortzen den materialaren bitartez formatzen ditugu arloka, eta bertan barneratzen du irakasleak komunikatzen ikasi kompetentzia nola garatzen den.

### **Eta hizkuntzazkoa den arlotan zer lantzen da kompetentzia honi lotuta?**

Beste arloetan metadiziplinarra den kompetentzia da gurean diziplinarra. Arlo guztion arteko lanak osagarri izan behar du eta ez errepika, beraz, horretan ere arreta berezia jarri behar dugu. Bestalde, hizkuntza sistemaren lanketa hizkuntzetan egiten da sakon. Hizkuntzak sortzen ditu egoera jakin batzuk jakinda sistematikoki bereak direla, eta horiek integratzen dira hizkuntzazko arloetan. Ulermena, adibidez, oso inportantea den trebetasuna da, eta ulermenaren hainbat alderdi sakon lantzen dira hizkuntzetan.

### **Zein emaitza jaso dituzue EKlren esperientziatik?**

Bi edo hiru urte daramatzagu material honekin lanean, eta arreta berezia jarri nahi diot ikasleengandik jaso dugun erantzunari. Irakasleek transmititzen dutena da aldaketa handia dagoela lehendik egiten ziren moduetatik orain egiten direnera. Aldaketa positiboa dela adierazten digute. Arlo guztietan zerbait egin behar dute eta hori egiteko ikasi egin behar dituzte gauzak. Egoera gauzatu egiten da, eta arlo guztietan

---

**Momentu honetan, kompetentzien diskurtsoarekin konturatu gara edozein arlotan ikasleari eskatzen diogula ekoizpen bat gauza dezan: hitzeko produktu bat, arte ekoizpen bat, gorputzaren bidezko komunikazioa... Komunikatzen jakiteak kontuan hartzen ditu komunikazio molde ezberdinak.**



**Bi edo hiru urte daramatzagu material honekin lanean, eta arreta berezia jarri nahi diot ikasleengandik jaso dugun erantzunari. Ikasleek transmititzen dutena da aldaketa handia dagoela lehendik egiten ziren moduetatik orain egiten direnera.**

zerbait polita egiten ari direnaren iritzia dute. Lehen ikasten zen azterketarako, eta orain gaiari edo egoerari erantzuteko ikasten da. Motibazioa oso handia da, eta ikusi dugu ikasleen emaitzak hobeak direla, gainera. Motibazioak berak ekartzen du emaitza hobe izatea ere.

Irakasle eta gurasoen artean kezka bat da lehen buruz gehiago ikasten zutela eta akaso orain ez horrenbeste. Horrek kezkatzen ditu irakasle eta guraso batzuk. Irakasleok irakaskuntzari buruz ditugun eskema mentaletik eskatzen duen aldaketa da arazorik handiena. Ikasleek ez dute arazorik. Hobeto baloratzen dute hori dena. Alderdi horretatik, gure lana bada irakasleei ez ezik, gurasoei ere aldaketa honen zergatia eta azalpena ematea, eta egiteko modu honek dituen onuren berri ematea ere bai. Guraso, irakasle, ikasle. Guztiek dute euren egitekoa eredu honetan ere.

Bestalde, ikasleen gaitasun komunikatiboari lotuta, ez zaizkit emaitza politik interesatzen, baizik errealak. Ahozko komunikazioa lantzeko garaian ere hiru egoera jartzen dizkiegu ikasleei. Egoera bakoitzean ere saio ezberdinak egiten dituzte ikasleek, eta pixkana-pixkana hobetzen dute euren komunikazio gaitasuna. Autoerregulazioari inportantzia handia ematen diogu, eta saio horietan guztietan sortzen diren erregulazioek laguntzen diote ikasleei euren ekoizpena hobetzen.

### **Zein lotura dute ahozko komunikazioaren lanketak eta hizkuntza-erabilerak?**

Inguruneak eta beste faktore ugari parte hartzen du euskararen erabileran. Guk gelatik bertatik ezin dugu guztietan eragin, baina pentsa genezake guk zer egin dezakegun euskararen erabileran gelatik bertatik eragiteko. Ikasleari komunikatzeko behar dituen tresnak ematea dagokigu. Arlo ezberdinetatik, gainera.

Egoerak eta konpetentziak lotzen ditugunean, asko zaintzen dugun gaia da bizitzako eremu ezberdinetako egoerak izatea: pertsonalak, akademikoak, sozialak... Hiru esparru horietako egoerak proposatzen dizkiegu, eta aniztasun horretan ikaslea gaitzen dugu ahoz komunikatzeko. Hiru egoera badaude, gainera, unitate didaktiko bakoitzean, etengabe dago presente edozein arlotan ahozko komunikazioa. Ikaslea gaitzen dugu horretara egoera ezberdinen bitartez. Zer lortzen dugu? Egoera ezberdinetan hitz egiteko trebeziak eta ohitura garatzen ari gara. Erraztasuna. Trebezia horretan pauso handia ematen da metodologia honen bitartez, eta hori ohitura bihurtzen da gaia lantzen dugunean.

Beraz, argi daukagu gaitasun komunikatiboa arloetan eta hizkuntzan lantzeak lagundu dezakeela erabileran ere. Batez ere, bizitzako egoera ezberdinetan jartzen ditugulako material honen bitartez. Hitz egiteko trebeziak garatzeaz gain, euskaraz hitz egiteko ohitura hartzen dutelako.

“Euskaldunak gara eta euskaraz egin behar dugu” gisa horretako mezuekin adin horretan, kontrako jarrerak ere sor ditzakegu. Eta aldiz, materialetan proposatzen diren egoerek eramaten dute ikaslea euskaraz egitera. Eta ez, egitea bakarrik. Guretzat inportantea da entzutea ere. Elkarrekin doaz hitz egitea eta entzutea.

### **Aurrera begira, zein dira zuen erronkak?**

Ahozko komunikaziorako kompetentzia arlo eta adin guztietako kompetentzia da. Metadiziplinarra, alegia. Edozein kompetentzia lortzeko osagaia. Ezinbestekoa da argi izatea zer landu nahi dugun, egoera horrek zer eskatzen duen ondo definitzea. Zer irakatsi eta nola irakatsi. Hori guztia sistematizatzea. Ebaluazioa ere garrantzizkoa da. Ereku horietan sakontzen jarraituko dugu bai DBHri begira, eta baita gainerako mailei begira ere.

Momentu honetan, DBHko oinarriak eta materiala LHra eramaten ari gara. Irteera profilarrekin koherentzian. Hizkuntza proiektuan, curriculumaz kanpoko alderdiarekin ere kezkatuta gaudenez, hizkuntza proiektutik landu nahi dugu eremu curricularretik gaindiko alderdia ere. ●

---

**Egoerak eta kompetentziak lotzen ditugunean, asko zaintzen dugun gaia da bizitzako eremu ezberdinetako egoerak izatea: pertsonalak, akademikoak, sozialak... Hiru esparru horietako egoerak proposatzen dizkiegu, eta aniztasun horretan ikaslea gaitzen dugu ahoz komunikatzeko.**